

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, “tokiko jai garrantzitsuenak titulartasun publikoko ondare gisa gordetzeko” hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

ZIOA

Herrizaingo sailak, segurtasun neurrien aitzakian, Jaizkibel konpainiaren alardearen ordutegia eta ibilbidea aldatu zuen joan zen irailaren 8an. Erabaki hark gatazka berri bat eragin zuen Hondarribiko alardearen egunean. Baina jaiak berdintasunean eta normaltasunean ospatzen ez diren erakusle bat gehiago da gertaturikoa.

Ez da lehenengo aldia berdintasunean ospatzea oztopatzen den jai horren inguruan istiluak sortzen direna. Hala, eta horri erantzun bat emate aldera, Eusko Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 30ean Irun eta Hondarribiko jai nagusiei buruzko legez bestekoa adostu zuen, zera eskatzen: jai-agerraldi guztietan eta toki-administrazio guziek Berdintasunaren Legea betearazteko; bai eta udal arduradunei eta indar politiko, sozial eta kultural guztiei, eta bereziki Irun eta Hondarribikoei gomendatzea jar ditzatela elkarrizketa-bideak gizarteko adostasuna eta harmonia berreskuratzeko, gisa horretara berdintasun-eskubidearen egikaritzea antola dadin”.

Arartekoak ere, iazko abenduaren 21ean “Emakume eta gizonen arteko berdintasuna jaietan” 3/2010 gomendio orokorra kaleratu zuen. Argudiatzen zuenez, “10 urte baino gehiago igaro dira, behin eta berriz eta ia etengabe, emakumeek tokiko jai ekintzetan duten parte hartzeari buruzko kexak jasotzen ari ginenetik, jaiak denak Euskadiko zenbait herritan oso errotuta dauden tradizioen adierazpenei buruzkoak”.

Arartekoak bere gomendio orokorrean argi adierazten duen eran, “tokiko herri aginteez (...) ezin dute lagundu, laguntza esplizitu edo inplizituaren, anbiguotasunaren edo inhibizioaren bidez, herritartasun kontzeptu herrena sendotzen, emakume eta gizonentzako berdintasunezko jairik ez dagoen Euskadiko tokietan, kontzertu horrek ezin baitu tokirik izan gure sistema demokratikoan (...) oso garrantzia da herri erakundeak, zein bere eskuduntza eremuan, aktiboki eta erabakitaz, itzulingururik eta zehaztu gabetasunik gabe, Euskadi osoan emakume eta gizonentzako berdintasunezko jaiak sustatzen engaiatzea”.

Horregatik guztiagatik, hurrengo legez besteko proposamena aurkeztu du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritza eskatzen dio, Arartekoaren 3/2010 gomendioari jarraituz, Euskadiko Autonomia Erkidegoko tokiko jairik garrantzitsuenak titulartasun publikoko ondare komun gisa gorde ditzala.

2- Era berean, eta gatazka konpontzen ez den bitartean, Hondarribiko alardean parte hartzen duen Jaizkibel konpainiari berma diezaiola betiko ibilbidea egin ahal izatea.

Gasteiz, 2011ko urriaren 6an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea